# elkarrizketaren aita santua ixilean hil

*Hoy hace una semana que murió Paulo VI, llamado por muchos el Papa del diálogo. Paulo Agirrebaltzategi intenta establecer en este artículo unos puntos para analizar la trayectoria de la Iglesia en estos últimos años y para intentar comprender la perspectiva en que esta se sitúa ante los próximos años.*
*Agirrebaltzategi analiza tres aspectos fundamentales: La dicotomía entre una Iglesia dogmatica y una Iglesia evangelica, la actuación de Paulo VI en cuanto a la definición de la Iglesia como "la Iglesia de los pobres" y, finalmente, los intentos de Paulo VI por rejuvenecer la Iglesia.*

Joan den igande arratsaldez (abuztuak 6), jendea oporralditan eta gizartearen eta Elizaren arazo handiak ahaztuta edo zebilelarik. Aita Santu bat hil da, Erromatik hogeitabost bat kilometrotara. Ustekabean hil da.

Gizon eta bereziki kristau asko atsekabetu du Paulo VI.aren heriotzak. Baina nork bere atsekabea aipatu beharrean, beharrezkoago da, heriotza honek eskaintzen dituen gogoeta gai batzu ematea.

Aurreko bien (Pio XII.aren eta Joan XXIII.aren) heriotzak gogoratzen ditugunok, haien gaixoaldiak Aita Santuaren eta jende askoren arteko elkarrizketa dramatiko bezala gertatu zirela gogoan dugu.

Elkarrizketaren Aita Santua deitu du askok Paulo VI.a. Hala ere, ixilean hil da. Elkarrizketa eskainiz eta irekiz hasi zuen bere Aitasantutza, "Ecclesiam suam" Entziklikaren bidez. Elkarrizketaren dinamikan sartu nahi izan zuen Eliza osoa; Eliz barneko elkarrizketa eta munduarekiko beste erlijioekiko eta beste kristauekiko elkarrizketa sakontzeko bideak ireki zituen.

Baina dinamismo harek gorabehera handiak izan ditu hamabost urteotan, eta badirudi azken urteotan itzaliaz joan dela. Aita Santuak berak barruan zuen dramagatik, inguruan ezartzen zitzaizkion oztopoengatik eta lehen zituen indarrak azkenekoetan galduak zituelako, irekitako bide haik estutuaz eta itxiaz joan dira. Eta elkarrizketa ireki hura gero eta moteldųago egin da azken urteotan. Paulo VI.a ixilean hiltzea, eboluzio horren sinbolo bezala ikus daiteke.

Astelehen goizetik, gure inguruko egunkari-irrati-telebistak hildako Aita Santuari buruzko hitzez eta hotsez bete dira. Haren biografia xeheak eman dituzte; haren eginak eta egingabeak aipatu dituzte. Gizon publiko gehienek (Eliztarrek eta Eliztar ez direnek) laudorioz bete dute; batek edo bestek zeharkako kritikaren bat erantsi du. Baina Paulo VI.aren gorpua hotz-beroa dago oraindik. Eta ez da laudorio bero hutsez hori jazteko eta estaltzeko une egokia; ez eta kritika hotzez hori larrutzekoa.

Heriotz ondorengo aipamen, laudorio nahiz kritikak, hildako pertsonari buruz egiten direnak, azkenean bakarrizketa besterik ez dira. Berriz ere elkarrizketa bultzatu beharra dago: ez Paulo VI.aren zuzenak eta okerrak zeintzu izan diren erabikitzeko, eta bai azken urteotan Elizak berak egin duen bidea eztertzeko eta ondorengo urteotan, gaurko dinamika sozio-kulturalean zer izan nahi duen argitzeko.

## Dogmaren eta Ebanjelioaren artean

Joan XXIII.ak hasi eta Paulo VI.ak burutu zuen Kontzilio Ekumenikoak zera deklaratu zuen: ez zuela dogmarik definitu nahi eta bai Ebanjelioaren mezua gaurko hizkeran eskaini.

Etengabeko zalantzatan ikusi du askok Paulo VIa. Bere izaera horrelakoxea zela pentsatu du hainbatek; beste zenbaitek, ordea, bere fintasun intelektualak horretaratzen zuela uste izan du. Paulo VI.ak ez du dogmarik definitu; baina azken urteotako Eliza dogmaren eta Ebânjelioaren artean ibili da.

Hil den Aita Santuaren ideia barnekoenetako bat Fedea zen. Gogoan dugu, San Pedroren egun hartan, kristau herri osoaren aurrean nola egin zuen bere fede aitorpena. Paulo VI.aren Kredoa bezala izendatu izan den formula handi harekin. Batek baino gehiagok, ordea, fede aitorpenaren baino dogma ezartzearen kutsu gehiago hartu zion Aita Santuaren Kredoari.

Dogma zaindu beharraren eta Ebanjelioa zabaldu beharraren artean ibili da Paulo VI.aren Eliza. Bata ala bestea hartu Elizaren asmo eta helburu nagusi bezala, oso ezberdina da. Uste dudanez, Kontzilioaz gaineeta Castelgandolfoko palazioan hil da.

Palazioan jaunak bizi izaten dira: erregeak, konteak, dukeak. Baina Kontzilioak "Jainkoaren Herri" bezala definitu du Eliza; eta Aita Santua Herri horren zerbitzari dela esan dura, azken Aita Santuak gero eman dituen "Populorum Progressio" eta "Evangelii Nuntiandi" entziklikek seinalatua utzi diote Elizari zein den bere egiteko nagusia gaurko munduan.

Datozen urteetarako Elizak bere burua Ebanjelioari buruz definitu beharko du aurrenik, eta ez dogmari buruz. Dogma eta Ebanjelioa finitu beharko du aurrenik, eta ez dogmari buruz. Dogma eta Ebanjelioa ez daude elkarren kontra; baina Eliza dogmatikoaren eta Eliza ebanjeliokoaren artean, bigarrenaren aukera egin behar duela uste dut datozen urteetako Elizak.

## Pobreen Eliza palazioan

Hiltzen ezagutu ditudan hiru Aita Santuak palazioan hil dira: Pio XII.a eta Paulo VI.a Castelgandolfon; Joan XXIII.a Vaticanon. Seguru asko horien aurrekoak ere palazioan hil ziren.

Nahiago nukeen nik, Paulo VI.a klinika arrunt batetan hil izan balitz. Harrigarria izango zen; baina bere esanahi handia izango zukeen. Zergatik ez dute Aita Santuek ere klinika arrunt batetan hil behar?

Paulo VI.aren Kontzilioak oso maite izan zuen Eliza. "Pobreen Eliza" deitzea. Eta hil den Aita Santuak berak gogoz bisitatu izan ditu Erroman, Colombian, Filipinas-en, Indian, etabar, auzo pobreak. Baina bera Vaticano-ko palazioan bizi izan da Palazioan bizi den jauna bisitatzera eta ikustera joan ohi da herria, hari ohore egitera; herriaren zerbitzari berriz, herrira hurbiltzen da, herria bere bizi den lekura.

Paulo VI.a palazioaren eta herriaren artean ibili izan da. Bere ibilaldietan gizartera eta herri pobreetara joan da; baina Urte Santua dela eta, Aita Santuaren ingurura eraman du kristau herria. Historian zehar, Urte Santuak Aita Santuaren irudia Eliza barnean aupatzeko gertatu izan dira, Eliza osoa Aita Santuaren inguruan biltzeko edo. Seguru asko azken Urte Santuan ere, Aita Santuaren itzala altxatu eta handitu nahi izan da; horretarako kristau herria Erromara eraman da.

Arrakasta handia aitortu zioten urte santuari Vaticanon, eta Paulo VI.ak berak ere bai. Baina seguru asko urte Santuak ez zuen lortu Aita Santua eta Erroma, Eliza osoaren zentru bakar eta gailur bihurtzea. Azken urteotan, alderantziz, kristau herriaren dinamikarik handiena herrian bertan dabilela nabarmendu da.

Urte Santuaren ondoren, hain zuzen ere, Paulo VI.aren itzala apalduz joan da. Eta seguru asko datozen urteetako Elizak gero eta argiago ikusiko du bere dinamika nagusia kristau herrian bertan dagoela, eta ez dela inola ere Erroman agortzen, are gutxiago Erromako eta Erroma inguruko plazioetan.

### 81 urte zituela hil da Paulo VI.a

1897ko irailaren 26an jaio zen Giovanni Battista Montini. Honela esan digute egin hauetako biografiek. Beraz, 81 urte betetzeko zegoen Paulo VI.a.

Aita Santua zahartzen zen arabera, Elizaren berrikuntza asmo eta esperantza berri eta kementsu haik ere moteldųz eta itzaliz joan dira.

Apezpikuek beren dimisioa ematera behartu zituen, 75 urte betetzean. Kardinalei Konklabean, Aita Santu berria hautatzean, eskuhartzeko eskubidea kendu zien, 80 urte betetzean. Hala ere, 80 urte ondo bete arren, Aita santutzat eduki dugu Paulo VI.a. Eliza pixka bat gaztetu nahi izan zuen; horregatik, 80 urte bete ondoren Aita Santu izateak erreparoa eman behar zion seguru asko berari.

Zergatik ez du Paulo VI.ak bere dimisioa eman? Arrazoin teologikoak? Nekez izan zezakeen holakorik. Erromako Kuriaren inguruaren presioak? Hori ulergarriagoak dira, nahiz eta onargarriak ez izan. Baina beharbada, Paulo VI.ak berak bazukeen bestelako beldurrik: hau da, Aita Santuaren irudia bera Eliza barnean erlatibizatzearena, alde batetik; eta dimisioa emandako Aita Santua, Aita Santu berriaren aurrez aurre kontrafigura gerta daitekeelakoaren beldurra.

Bere dimisioa emanez, hala ere, ez zuen inolako normarik ezarri beharrik. Eliza pixka bat gaztetzen saiatu zen Paulo VI.arentzat jokabide logikoa eta seinale ohoragarria izan zitekeen. Eta Elizaren hierarkia -eta Aita Santua bera- askozaz gazteagoa nahi dugunontzat zirikada eta bultzada izan zitekeen Paulo VI.aren dimisioa.

Baina Paulo VI.ak ez du bere dimisioa eman. Aita Santu zahar bezala hil da. Berak ere bazekien zaharra zela. Arantza eta drama bezala zeraman bere zahartasuna.

Hala ere, edo seguru asko horrexegatik, Paulo VI.aren garaian Elizak ulertua du, bere kuadroak gaztetu beharra daukala. Hala ulertzen dugu eta nahi dugu kristau askok behintzat.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

## colaboración

## por un partido revolucionario abertzale

*SUGARRA (LAIA)*

La lucha armada de resistencia, por sus caracteristicas propias, es un marco de participacion limitado y de minorías. Ante este hecho, las clases populares vascas han tenido un papel menor en el orden participativo de los procesos de luchas, limitandose a actuar masivamente cuando ha sido necesario: es decir, no de una manera permanente. Asi se repite el hecho de que ante coyunturas muy concretas (juicio de Burgos, Txiki y Otaegi, amnistia), la izquierda abertzale ha salido a la calle como un sólo hombre para desaparecer inmediatamente en cuanto el problema concreto se difuminaba.

Estos vacíos siguen siendo algo típico a pesar de que una pequeña parte de la izquierda abertzale esta actualmente organizada, tanto en partidos pequeño-burgueses como en los revolucionarios. La inmensa mayoría son independientes, no encuadrados políticamente en ninguna estructura que asegure la continuidad diaria en la participación política. Así, en momentos muy concretos, esta mayoria aparece con fuerza, como por ejemplo el Aberri Eguna, es decir, cuando las minorías organizadas recaban su presencia activa, unitaria y limitada en los hechos y en el tiempo.

Habría que examinar la fragmentación política partiendo de sus orígenes, de los hechos que la han motivado. La necesidad de crear un organismo político abertzale que encuadrara en una practica movilizadora a las masas obreras vascas y marcase una dirección política a las capas populares, al tiempo que capitalizara en términos políticos la lucha armada, ha sido una constante dentro de la izquierda abertzale.

Dependiendo de los diferentes análisis de la realidad y de los objetivos a conseguir, del particular contenido que cada cual ha atribuido al termino general de socialismo, se han creado diferentes partidos que han cristalizado en un abanico que abarca a todos los sectores de la izquierda abertzale, desde la social-democracia hasta las formaciones políticas revolucionarias.

La diversidad de opciones ha creado en esa base social el desconcierto y la desmoralizacion. De la unidad abertzale se ha pasado a las divisiones de clase.

Estos núcleos políticos son aún embrionarios, dada la baja cohesión política de la izquierda abertzale, sólo los elementos más preparados políticamente han pasado a formar parte de aquellos, quedando la inmensa mayoría fuera de la arena política persistiendo su polo de referencia externa -ETA- de la cual todos los partidos se reclaman en mayor o menor medida esperando el placet de esta para poder tener acceso a esa base social de la cual la estructura armada es la cohesionadora máxima.

